

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea


ETXETIK SUSTATZEN DEN IRAKURZALETASUNA

Egilea: Olatz Onaindia Goienetxea

Zuzendaria: Kepa Larrea

Leioan, 2014ko ekainaren 11n

© 2014, Olatz Onaindia



ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala	5
1.1. Irakurketa	5
1.2. Irakurtzearen gozamina	5
1.3. Irakurketa bultzatzeko teknikak	6
1.4. Gazteen testigantzak	7
1.5. Irakurketa etxetik sustatzearen garrantzia.....	8
2. Metodologia	8
2.1. Herriaren ezaugarriak.....	10
2.2. Eskolen zenbait ezaugarri	10
2.3. Inkestatuen ezaugarriak	10
2.4. Galdetegien ezaugarriak.....	11
2.5. Hipotesiak	11
3. Lanaren garapena	12
3.1. RM Azkue Ikastola	13
3.2. Lekeitioko Euskal Eskola Publikoa	13
3.3. Udal Kultur erakundea.....	14
3.4. Gurasoak	14
3.5. Irakasleak	15
3.6. Liburutegiko arduraduna.....	15
4. Emaitzak eta ondorioak.....	16
4.1. Emaitzak	16
4.2. Ondorioak	20
5. Hausnarketa eta proposamena.....	23
6. Erreferentzia bibliografikoak	25

ERANSKINAK

1. eranskina. Gurasoentzako galdetegia	27
2. eranskina. Irakasleentzako galdetegia	30
3. eranskina. Liburutegiko arduradunarentzako galdetegia.....	32
4. eranskina. Amen datu orokorrak	34
5. eranskina. Aiten datu orokorrak	35
6. eranskina. Irakasleen datu orokorrak.....	36
7. eranskina. Gurasoen erantzunak	37
8. eranskina. Irakasleen erantzunak.....	40

ETXETIK SUSTATZEN DEN IRAKURZALETASUNA

Olatz Onaindia Goienetxea

UPV/EHU

Irakurketa bizitza osoan zehar gizakiak jorratu beharko duen prozesu konplexua da. Irakurketarekiko lehen harremanak txikitatik eta familia giroan hasten direla kontuan izanik, hizkuntza idatziaren sustatze egitasmoan familiak duen ezinbesteko papera gailendu nahi izan dugu lan honetan. Horrenbestez, Lekeitioko 3-5 urte bitarteko haurren familiek etxetik irakurzaletasuna sustatzeko egiten duten ahalegina aztertze, galdetegi bidezko ikerketa bat egin dugu. Burututako ikerlanetik ondorio interesgarriak ateratzea lortu dugu; besteak beste, etxean gurasoek hurrekin irakurtzeko ohitura erakutsi arren, liburutegira edota ekimenetara joateko ez dutela esfortzu handiegirik egiten; edota familiek ez dutela oparien rankingeko gorengo mailan kokatzen liburua.

Irakurzaletasuna, familia, eskola, liburutegia, liburu-opari

La lectura es un proceso complejo que el ser humano tendrá que aprender a lo largo de la vida. Como las primeras relaciones con la lengua escrita se dan a edades tempranas y en ambiente familiar, hemos querido hacer hincapié en el papel fundamental de la familia en el fomento de la lectura. Por lo tanto, con el fin de analizar el esfuerzo que hacen las familias de Lekeitio con hijos de 3-5 años para fomentar la lectura desde casa, hemos realizado una investigación basada en cuestionarios, de la que hemos obtenido conclusiones interesantes; tales como, que aunque los padres tengan el hábito de leer en casa con los hijos, no hacen un gran esfuerzo para ir a la biblioteca o a eventos culturales; o como que el libro no lo sitúan en posiciones altas del ranking-regalos.

Fomentar lectura, familia, escuela, biblioteca, libro-regalo

Reading is a complicate process that the human beings have to learn along their whole life. As the first relations with the written language take place at early age, we would like to emphasize the important role that family has in the reading promotion. So, in order to analyze the effort that families from Lekeitio, that have children of ages between 3 and 5, do to encourage reading from their homes, we have carried out a research based in a questionnaire. We have obtained interesting conclusions; such as, although they are used to reading to their children at home, they don't do a great effort to go to the library or events; besides books are not situated in the high level of the gift ranking.

Reading promotion, family, school, library, book as gift

Sarrera

“Ni ez naiz naizena idazten dudanagatik, irakurri dudanagatik baino.”
Jorge Luis Borges

Gazteek gutxi irakurtzen omen dute, eta hori kezka iturri da guraso eta irakasleen artean. Zenbait azterketen emaitzak ikuskatuz gero, adinak gora egin ahala, irakurtzeko ohitura murrizten dela ikus daiteke. Hortaz, irakurketarako zaletasunaren galera antzematen da.

Testuak ulertu eta interpretatzea, bizitza osoan zehar garatzen den ezinbesteko prozesu luze eta konplexua da eta, askoren esanetan, ikasketa mota hori testuinguru formaletan (hezkuntza sisteman) zein ez-formaletan (familiar eta lagunartean) burutu beharko litzateke. Beste askoren artean Staigerrek dioenez (1994:40-42), nahiz eta formalki eskolari dagokion ikasleak irakurle gaituak bihurtzeko prozesuaren gidaria izatea, etxeak eskaintzen dituen baldintza bereziak (afektua, ulermena, komunikazioa edota guraso eta seme-alaben gertutasuna) aprobetxatuko balira eta familia giroan landuko balitz trebakuntza, irakurketaren ikaskuntza esanguratsuagoa eta eraginkorragoa lortuko litzateke.

Azken finean, haurrak berezko duen imitazio gaitasunetik asko ikasten duen arren, irakurzaletasuna bultzatzeko eta lehen hurbilpen atsegina izateko, irakurketa beharrezko duela eta kulturaren parte dela nabarmenduko dion pertsona baten presentzia behar izango du (Silva, 2001). Familiaren presentzia, alegia. Baina, gaur egun familiek daramaten bizitza gorabeheratsuekin, sustatzen da irakurzaletasuna etxetik?

Garbi daukagu irakurzaletasunak bere osotasunean beharko zukeen ikerketa, lan honetan egin beharrekoa baino askoz ere osatuagoa eta konplexuagoa litzatekeela. Horrenbestez, oraingo honetan gaur egungo familiek seme-alabekin irakurtzeko duten ohitura ikertu nahi izan dugu, alde batetik irakurketaren garrantziaz eta ikasleen adina gora joan ahala, irakurzaletasunak jasaten duen gainbeheraz arduratuta eta, bestetik, irakurketaren irakaskuntzan familiak izan dezakeen garrantzizko paperaz ohartuta.

Ikerketa, Lekeition burutu dugu eta Haur Hezkuntzako bigarren etapako familietan besterik ez gara zentratu. Aurreratu nahiko genuke galdeketa bidezko ikerketa honetan emaitza eta ondorio interesgarriak atera ditugula eta, arlo honetako ohiko ikerketen ildotik, Lekeitioko familiek bere seme-alaben irakurzaletasuna pizteko daukaten borondatea edo egiten duten ahalegina ebaluatuko dela kuantitatiboki.

Halaber, ezin dugu ziurtatu etxetik egiten den ahalegin horrek etorkizuneko irakurzalerik ziurtatuko duen ala ez. Zaletasuna ez datorkigu jaiotzatik txertatuta. Ez da oinordetzan hartzen. Bakoitzak landu behar duen afizio bat izango da, baina kutsatzeko arriskua egonik, saia gaitezen gure seme-alabei etorkizunerako balizko izango zaien jardun baterako hurbilpen atsegin bat eskaintzen.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Irakurketa

Liburuetan irakurketaren gaineko definizio bat baino gehiago aurki genezakeen arren, gu hurrengo honekin geratuko gara: *irakurtze prozesua, zenbait jakintza aktibatu ondoren, gizabanakoak burutzen dituen jardun konplexu batzuen ondorioa da. Hau da, letra, hitz edo perpausak adierazten dituzten bestelako ikurrak begi-bistaz aztertuz, esanahia ulertu eta zentzu osoa hautematea* (Larrea eta Maia, 2010:114). Horrenbestez, irakurleak testu idatzia irakurtzen duen heinean, gaiaren inguruko jakintzak edo aurrezagutzak, testuak ematen dizkion zantzuak, eta irakurketan martxan jartzen diren hainbat operazio mental eta estrategia erabili beharko ditu (Aguirre de Ramirez, 2000:148).

Argi dago irakurtzea ez dela egun batetik bestera ikas daitekeen prozesua. Irakurketa, bizitza osoan zehar ikasten den prozesua da. Irakurtzen ikasteak, ez datza bakarrik hitzak dekodifikatzean. Hori guztia baino konplexuagoa da eta prozesua menderatzea ez da bat ere erraza. Gizabanakoak praktika, esfortzu, irmotasun eta laguntza handiak behar ditu irakurle ona bihurtzeko.

Haurrek, bere hezkuntzako giltzarri den imitazioz ikasten dituzte hainbat eta hainbat gauza, baina berezko duten gaitasun horri etekina atera ahal izateko, laguntza behar izaten dute. Horrenbestez, haurrak bere ingurunean bizi direnak irakurtzen sumatzen baditu, eta irakurtzen ari direnean gauza jakingarri eta interesgarri askoren berri jasotzen dutela konturatzen bada, berehala hasiko da ikertzen, mundu horren nondik norakoak jakin nahian (Oihartzabal, 1996:22).

1.2. Irakurtzearen gozamina

Hainbat ikerketak erakusten dutenez, eskolara joan baino askoz lehenago, modu naturalean eta espontaneoan egiten dute haurrek irakurketarako lehen hurbilketa. Lotura

estuagoa, ordea, ondorengo urteetan izango dute. Bi eta hiru urteen artean, irudidun testu sinpleak interpretatu ditzakete, baldin eta alboan, bien arteko irakurketan planteatzen dituzten galderei erantzuteko eta testu horien berri emateko beraiekin arituko den pertsona heldu bat badute. Hiru eta lau urteen artean, irudiek ematen dieten laguntzaz baliatuz, testuaren esanahia liburuko orrialdeekin lotzen dute. Eta lau-bost urtetik gora, gai izan daitezke beraientzat ezagunak diren istorioak kontatzen dituzten liburuxkak modu independentean irakurtzeko (Molina, 2001).

Bada, bizitzaren lehen hamarkadan hartzen du gizabanakoak irakurtzeko ohitura. Hala ere, ohitura ez da betiko, iraunkortasuna behar du. Irakurtzea, bizitzarekiko ardurek eta jakin-minek eragindako ohitura baino gehiago, irmotasuna, jarraipena eta fideltasuna baita (Barandiaran, 2010:12-13).

Argi dago, ingurunea eraginkorra denean eta baldintza onak eskaintzen zaizkionean ikasiko duela haurrak irakurtzen eta irakurketaz gozatzen. Liburuekin, beste irakurketa materialekin zein irakurtzen irakatsiko dien pertsonekin dituen harremanak eraginkorrak direnean, alegia (Aguirre de Ramirez, 2010:149).

Irakurketaz gozatzen ikasi egiten dela diote pedagogoez eta, hortaz, gozatzeko hori irakatsi daitekeela izan behar da kontua. Nola, ordea?

1.3. Irakurketa bultzatzeko teknikak

Urte asko dira liburuaren inguruko jarduerak eta irakurzaletasuna bultzatzeko teknikak diseinatu direla, baina ez da inon emaitza eraginkorrik ageri. Morenoren iritziz (2000:10), akatsa diseinuan dago; eskaintzen diren ekintzetan kilikagarria metodoa izaten da, eta ez liburu bera. Hau da, irakurketa bultzatzeko teknikak ez dute liburu bera irakurtzeko gogoia ekartzen, amarru lana egiten duen jolasarena baizik, haurrak amarruan erori eta liburu irakurtzen hasteko. Horrenbestez, modu horretako teknikak ez dute irakurzaletasuna sustatzen, ez baitute epe luzerako irakurlerik sortzen.

Guztiz zaila da irakurketa bultzatzeko teknika eraginkorrak diseinatzea. Kontuan izan behar da, batetik, irakurketa bakarka egiteko prozesua dela, pertsonala eta intimoa. Bestalde, geldirik eta mugimendua mugatzen duen jarduna da. Eta azkenik, isiltasuna eskatzen duena. Haurrak, ordea, ez du nahi hori. Haurra ez du erakartzen bakarka, isilik eta mugitu gabe egiten den jardunak. Haurrak haurra izan nahi du eta hurrekin harremanak izan nahi ditu: jolastu, mugitu, bizirik dagoela sentitu, zarata egin, entzun ... nahi du. Helburu bat bilatu behar dio burutzen duen orori eta horretarako, mezua helaraziko dion bide lagun baten beharra izango du (Moreno, 2000:10-11).

Akaso, horiek lirateke diseinatzen diren hainbat teknikaren akatsak; taldeka, ahots goran eta jolasen bidez burutzeko diseinatuta daude eta urrun geratzen dira irakurketak benetan barnebiltzen dituen aspektuetatik.

Hala ere, irakurtzera bultzatzeak ez du etorkizunean irakurle sutsuak izango direnik bermatuko. Sarritan gertatzen da haurrek ez dutela irakurri nahi izaten, baina arrazoi desberdinak izan daitezke jokabide horren bultzatzaile: irakurri nahi ez dutelako, irakurtzea gustuko ez dutelako edo, akaso, irakurtzearen helburua ondo helarazi ez zaielako edota ez dakitelako irakurtzen, besteak beste.

1.4. Gazteen testigantzak

Irakurzaletasuna pizterakoan izan eta egin behar liratekeen eta ez liratekeen jokabide eta jardunen gainean gauza askotaz oartzeko eta hausnartzeko, ez letorke batere gaizki Jakingarriak aldizkariak bere 68. alean argitaratutako gazteen testigantzak kontuan izatea. Gazteen eta liburuaren arteko lehen harremanak nolakoak diren, nolako bizipenak dituzten gogoan edota zerk baldintzatu zituen zaletasuna izatearen gaineko testigantzak, alegia. Adierazpen horien artean, batzuk gozoak dira eta besteak, ordea, garratzak.

Bizipen gozoetan, irakaslearenarekin batera, gurasoen paperaren garrantzia azpimarratzen dute gazteek; liburu egokiak eskuratzea, ipuinak entzutea, liburuak oparitzea, liburuak aukeratzeko askatasuna izatea, protagonista sentitzea, liburutegira joatea ... Askori etxekoek transmititu izan diete irakurtzeko ohitura. Oraindik ere gogoan dituzte etxean eskuragarri zeukaten liburu sorta eta baita, gurasoekin batera irakurtzen pasatako momentu ederrak ere. Horrez gain, lagunen eragina, eskola eta liburutegi batzuen jarrera positiboa ere aipatzen dituzte (Añorga, 2010:14-17).

Bizipen garratzetan, berriz, guztiaren gainetik, eskola ageri da: beraien esanetan, paper penagarria eskolarena, liburuak maitatzen baino gorrotatzen irakatsi zielako. Liburuak aukeratzeko askatasunik ez izatea, liburuak irakurtzerakoan denbora neurtu beharra, azterketak egitea, biblioteca eskasa izatea ... eta batik bat, irakurtzera behartzea salatzen diote gazteek eskolari. Etxekoen borondate falta ere aipatzen dute. Ondorioz, gaur egun gazte askorentzat ez omen da erakargarria irakurketa (Añorga, 2010:17-20).

Hala ere ez da guztia beltza edo zuria. Badira irakurzaletasuna duten gazteak ere; batzuk txiki txikitatik jorratutako ohituren eraginez eta beste batzuk, ordea, eskolatik irten ostean hartutako zaletasunagatik.

1.5. Irakurketa etxetik sustatzearen garrantzia

Eskolan irakurketaren emaitzak hobetzeko proposamenak egiten dira, hala nola, irakurketaren irakaskuntza goiztiarrari ekin, metodoetan aldaketak eta hobekuntzak planteatu, curriculumena irakurketari ordu gehiago eskaini, idazleekin elkarrizketak izan edo ulermen-testak egin. Hala ere, horrekin bakarrik hankamotz gera daiteke irakurketa sustatzeko esfortzua, haurra irakurtzera animatzen duena, eskola barruan zein kanpoan irakurtzeko eskaintzen zaion aukera eta antzematen duen irakurketarekiko jarrera egokia izaten baita. Horrenbestez, ekintzan parte hartu eta honekiko grina pizteko, ingurukoak irakurtzen ikusteko beharra du haurrak (Fons, 2004:3).

Egindako ikerketa guztietan ondorioztatuenez, familian bertan irakurtzeko zaletasuna bultzatzea litzateke hizkuntza idatziaren irakaskuntza hobekien bermatzeko modua (Molina, 2001). Hortaz, familiek beraiei ere oso zuzenduta dagoen prozesu gisa kontsideratu beharko lukete hizkuntza idatziaren irakaskuntza. Azken finean, eskolak ez dauka familiak duen indar estimulatzailea eta guraso eta seme-alaben arteko lotura afektibo estua aprobetxatuz, haurrak irakurketarekiko lehen hurbilpena etxean jasotzea guztiz eraginkorra suertatu daiteke etorkizuneko hezkuntzarako (Merino, 2001).

Irakurketa etxetik sustatzearen abantaila garrantzitsuenak honoko hauek dira: hiztegia areagotzea, idazkera eta mintzamena hobetzea, entzumena eta memoria gaitasuna hobetzea, esperientziari esker liburuekiko gozamina lortzea, irakurketarekiko interesa piztea, haur eta gurasoen arteko harreman afektiboa hobetzea, larritasun eta gatazka afektiboari irtenbidea bilatzen laguntzea, ziurtasuna bereganatzea, edota bizitzarekiko informazioa eta, oro har, jakintza eskuratzea, besteak beste (Cova, 2004:58).

2. Metodologia

Etxetik sustatzen den irakurzaletasuna ikertzeko, aurreko marko teorikoan azaldutakoaren ildotik ikerketarako metodologia zehaztu dugu ahalik eta ondoen haurren beharrianak eta gabeziak antzemateko eta, ondorioz, erantzun egoki bat emateko.

Horrenbestez, lehenik ikerketa burutuko den testuingurua aztertu eta zehaztuko dugu. Ondoren, informazioa eskuratzeko erabiliko dugun metodoa definitu eta beharrezko galdeketak prestatuko ditugu. Eta azkenik, informazioa eskuartean dugularik, familiek irakurzaletasuna sustatzeko egiten duten ahaleginaren gaineko emaitza eta ondorio

interesgarriak aterako ditugu eta horrela, ikerketa aurreko susmoak edo hipotesiak bete diren ala ez baieztatzeko aukera izango dugu.

Lerro gutxitan aurrez aipatutako pausu horien gaineko zehaztapenak azalduko ditugu:

- a) Testuingurua zehaztu: datu teorikoak eskuan izanda, ikerketa burutuko den testuingurua aztertu eta zehaztuko dugu. Hala nola, herria, ikastetxeak eta baita ikertuko diren kolektiboak, haien adin tartekak eta bestelako ezaugarriak ere. Gure kasuan, ikertuko den herria Lekeitio izango da eta emaitzei begira beharrezkoa dugun informazioa eskuratzeko, seme-alabak Haur Hezkuntzako 2. zikloan matrikulatu dituzten gurasoengana joko dugu. Horrez gain, familiakoek emango diguten informazioa alderatzeko, zikloan lanean diharduten irakasleen eta udal liburutegiko arduradunaren laguntza ere eskatuko dugu.
- b) Metodoa definitu: testuingurua zehaztuta, informazioa eskuratzeko erabiliko dugun metodoa definituko dugu. Hain zuzen ere, metodoa, emaitza kuantitatiboak ateratzeko helburuz, galdetegi bidezkoa izatea erabaki dugu eta horretarako 3 inkesta edo galdetegi prestatuko ditugu: bata gurasoei, bestea irakasleei eta, azkena, udal liburutegiko arduradunari zuzenduko zaizkie. Galdetegiok, galdera anitzez osatuak egongo dira eta erantzutean, aukeran emango diren erantzunen artean, bere iritzi edo egoerara gehien egokitzen dena adierazi edo aukeratu beharko dute inkestatuek.
- c) Galdeketak egin: emaitza esanguratsuak eta baliagarriak lortzeko, galdetegi kopuru adierazgarri bat luzatuko da herriko gurasoen, irakasleen eta liburutegiko arduradunaren artean.
- d) Emaitzak eta ondorioak atera: ikerketarekin amaitzeko, erantzundako galdetegiak aurrean ditugularik, emaitzak eta ondorioak aterako ditugu; alde batetik, jasotako erantzunak ondo aztertu eta herri mailan etxetik bultzatzen den irakurzaletasunaren gaineko ikerketaren emaitza kuantitatiboak lortuko ditugu. Eta bestetik, emaitza horiek ondo hausnartuta, ondorioak ateratzeko aukera izango dugu.

Jarraian, ikerketa burutuko den testuinguruaren gaineko ezaugarriak adieraziko ditugu: herriaren ezaugarriak, ikastetxeen zenbait ezaugarri, inkestatuen ezaugarriak eta baita galdetegien ezaugarriak ere. Gainera, bukatzeko, oraindik ikerketaren emaitzez hitz egiteko goiz izan arren, gure lehen hipotesiak aurreratzera ausartuko gara.

2.1. Herriaren ezaugarriak

Lekeitio, Bizkaia iparraldean dagoen 7500 biztanle inguruko kostaldeko herri euskalduna da. Tradizioz herri arrantzalea izan den arren, gaur egun turismotik bizi nahi lukeen herria da Lekeitio. Errekurtso ekonomikoei dagokienez, herriko biztanleriaren ia % 100 erdi mailakoa da eta hirugarren sektoretik bizi da gehiena. Orokorrean Lekeitio bizi den jendea jatorriz euskalduna da. Azken urte hauetan etorkinen bat edo beste etorri da herrira, baina kopurua urria da beste herri batzuekin alderatuta.

2.2. Eskolen zenbait ezaugarri

Herriko hezkuntza eskaintzari dagokionez, 6 ikastetxe daude: Partzuergoko Haur Eskola, Lekeitioko Euskal Eskola Publikoa, Ikastolen Elkarteko RM Azkue Ikastola, Iturriotz BHI, APA Lekeitio eta azkenik, AEK zentroa.

Hala ere, Haur Hezkuntzako 2. zikloko haurren gurasoek etxetik irakurzaletasuna bultzatzeko duten irimotasuna aztertzeke asmoz, etapa hori eskaintzen duten ikastetxeak besterik ez ditugu analizatuko: Euskal Eskola Publikoa eta RM Azkue Ikastola, alegia (1. taula).

	RM Azkue Ikastola	Euskal Eskola Publikoa
Izaera legala	Itunpekoa	Publikoa
Hezkuntza mailak/eredua	HH-0tik DBH-4ra / D eredua	HH-2tik LH-6ra / D eredua
Irakasle kopurua	40	48
Ikasle kopurua	406 (% 41)	547 (% 59)
Metodologia /proiektuak	Elkarteak proposatutakoak	Ikas Komunitateak

1. taula. HHko bigarren zikloa eskaintzen duten ikastetxeen datu orokorrak

2.3. Inkestatuen ezaugarriak

3 inkestatu mota aukeratu ditugu beharrezkoa dugun informazioa helarazteko: alde batetik gurasoak, bestetik irakasleak eta azkenik, udal liburutegiko arduraduna.

Gurasoei dagokienez, aurrez aipatutako 2 ikastetxeetan, HH-3 eta HH-5 mailetan seme-alabak dituzten gurasoak izango dira. Gainera, aita eta ama bereiziko ditugu. Horren arrazoia oso sinplea da; gaur egun, familia tradizionalaz gain, badira beste familia eredu batzuk ere eta ikerketaren ondorioak ateratzerako orduan, datu interesgarria iruditu zaigu aintzat hartzea aldaera posible hori. Bestalde, familia kide bakoitzak bere galdetegia erantzutean, aitek eta amek haurren irakurzaletasunean nola, noiz eta zenbat denboraz parte hartzen duten jakiteko balioko digu. Hau da, bakoitzaren inplikazio maila balioztatzeke.

Bestalde, gurasoek helarazitako datuak alderatzeko, Haur Hezkuntzako 2. zikloan lanean diharduten irakasle eta liburutegiko arduraduna ere, inkestaturen artean sartuko ditugu.

2.4. Galdetegien ezaugarriak

Beharrezkoa dugun informazioa jasotzeko, 3 galdetegi desberdin prestatuko ditugu; bata gurasoentzako (ikus 1. eranskina), bestea irakasleentzako (ikus 2. eranskina) eta azkena liburutegiko arduradunarentzako (ikus 3. eranskina).

Formari dagokionez hainbat ezaugarri komunean izango dituzte hiru galdetegiek; alde batetik, luzatzen diren galdera guztiak etxetik sustatzen den irakurzaletasunaren gaineko gaia jorratuko dute, eta bestetik, 10-22 galderaz osatuta egongo dira, baina nahiz eta era desberdin batean planteatuta egon, erantzun berdintsuak bilatzeko galderak izango dira guztiak. Gainera, erantzulearen datu pertsonalak eskatuko diren arren, subjektuaren anonimotasuna mantenduko da guztietan. Eta azkenik, emaitza adierazgarriak eta kuantitatiboak ateratzeko, idazteko galdera bat izan ezik, beste guztiak aukera anitzeko galderak izango dira. Komunean izango ez dituzten ezaugarriak, galdetegi bakoitzaren galdera kopurua eta aparteko pare bat galdera izango dira.

2.5. Hipotesiak

Gaiaren inguruan irakurritako informazioa barneratuta eta gaur egungo familien bizimodua presente izanda, baditugu galdeketetatik aterako diren emaitzen lehen susmo edo hipotesiren batzuk:

1. Gurasoek gutxi irakurtzen dute bere seme-alabekin eta irakurtzen dutenetan, hurrek eskatzen dutelako izaten da. Hortaz, etxetik irakurzaletasuna irmotasun gutxirekin sustatzen den sententzia daukagu. Arrazoi desberdinak direla medio, irakurketarekiko zaletasuna pizteko gurasoen eragina txikia izaten dela uste dugu, alegia. Denbora falta, ohitura falta edota irakurtzeko zaletasun eza izan daitezke eragin horren arrazoiak, baina batek jakin!
2. Gurasoek seme-alabekin batera liburutegira edota herrian antolatzen diren ekimenetara joateko ere, usadio txikia daukatela uste dugu.
3. Liburuak opari preziatuak diren zalantzan jartzen dugu eta hortaz, urtean zehar liburu gutxi oparitzen direlakoan gaude.

Bukatzeko, esan, nahiz eta etxetik sustatzen den irakurzaletasunak etorkizuneko irakurleak eta irakurzaleak eratzeko inolako ziurtapenik ez eman, hurrek

irakurketarekin izango duten lehen harremana ahalik eta eraginkorra eta atsegina izatearen aldekoak garela. Iritzi horrek lagundu digu, hain zuzen ere, ikerketarekiko interesa, gogoia eta grina mantentzen. Jakin badakigu, adina gora joan ahala, gazteek gero eta gutxiago irakurtzen dutela eta horren errua eskolari esleitzen zaiola. Gazteen esanetan, aukerako jarduera bat izatetik derrigorrezko jarduera bat izatera bilakatzen du eskolak eta inposaketa horrek, gorrotoa helarazten omen du. Hala ere, txikitan atseginez hartutako ohitura etorkizunean berreskuratzeko aukera badagoelako usteari eutsiz, gurasoak bere seme-alabekin irakurtzera animatu nahiko genituzke.

3. Lanaren garapena

Etxetik bultzatzen den irakurzaletasunaren gaineko ikerketa egiteko, metodologia atalean planifikatutako urratsak jarraitu ditugu eta erabilitako lagina ere han adostutakoa izan da. Halaber, Lekeitioko herrira mugatuta, udal liburutegiko arduraduna, Haur Hezkuntzako 2. zikloa eskaintzen duten ikastetxe bietako irakasleak eta seme-alabak hauetan matrikulatuta dituzten gurasoak izan dira ikerketa egiten lagundu digutenak.

Oro har, oztopo gutxi izan ditugu ikerketa egin bitartean. Hala ere, beti izaten da aurre egin beharreko eragozpenik. Batetik, irakasleen aldetik, denbora faltak eraginda, guk uste baino denbora luzeagoa behar izan dute galdetegiak erantzuteko eta horrek ikerketen emaitzei begirako lana atzeratu digu. Bestetik, gurasoek aditzera eman digutenez, galdera batzuetan eskaini diren erantzunak ez dira egokitu beraien nahietara eta baldintzatuta egon dira erantzunaren aukeraketan. Adibide gisa, hurrengo galdera/erantzun hau har genezake:

🚦 Noiz irakurtzen duzu/diezu seme-alabei?

Gauero Denbora dagoenean bakarrik Inoiz ez

Kasu honetan, beste erantzun batzuen falta sumatu dute gurasoek. Hala nola, afaldu ostean, oheratzean, etxean gauden edozein momentutan edo kalean gaudenean bezalako erantzunak bota dituzte faltan. Eta azkenik, aurkitutako eragozpenen artean, ikerketa egiteko metodoaren aukeraketa legoke; guk aukeratutako metodoa galdeketa bidezko ikerketa bat egitea izan da, non aukerako erantzunak eta galdera zabal bakarria luzatu zaizkien inkestatuei. Kontua da, arrazoiak aparte, galdeketa egitean gauza interesgarri gehiago kontatu dizkigutela inkestatuek ahoz, idatziz baino.

3.1. RM Azkue Ikastola

Itunpeko izaeradun Ikastolen Elkarteko ikastetxea da. Partaidetza sozialeko entitatea izanik, ikastolaren kudeaketan langile, guraso eta kooperatibistek parte hartzen dute.

Hezkuntza eskaintzari dagokionez, HH-0tik DBH-4ra bitarteko mailak barnebiltzen ditu ikastolak eta ikastolen politika kontuan izanda, D hezkuntza eredia eskaintzen da soilik.

Hainbat proiektu ditu ikastolak eskuartean: hizkuntzarekin, jantokiarekin, osasunarekin, euskal kulturarekin edota kirolarekin lotutakoak, besteak beste. Gutxi gora behera, 406 ikasle daude matrikulatuta ikastetxean eta 40 irakasle inguru ari dira ikastetxean lanean.

Haur Hezkuntzako etapan zentratzen bagara, 2013-2014 ikasturte honetan, *0-6 Proiektua* deritzon proiektu berria martxan jarri du duela gutxi Lekeitioko Ikastolak.

Proiektu hau, Rafael Cristobalek (psikiatra, mediku eta irakaslea), “El niño en la mirada del conocimiento” liburuan eskaintzen duen pedagogian oinarritzen da. Konfiantzaren pedagogia aldarrikatzen da bertan.

Hitz gutxitan esanda, gurasoek nahiz irakasleek, umeen gaitasunetan sinetsiz, konfiantza eta segurtasuna edukitzea dira planteatzen den heziketaren ardatzak.

Adin desberdinetako haurrak ikasgela bakar batean daude (espazio irekian: ate eta horma gabekoan) eta elkarbizitzari esker, umea bera da garapenaren bidea bilatzen duena.

3.2. Lekeitioko Euskal Eskola Publikoa

Lekeitioko Euskal Eskola Publikoan, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako etapak besterik ez dira eskaintzen: 2 urtetik 12 urtera arteko euskal curriculum ardatz duen hezkuntza sistema, alegia. Hezkuntza ereduari dagokionez, beste herriko ikastetxeetan lez, D eredia bakarrik eskaintzen da. Guztira, 547 ikasle daude matrikulatuta eskolan eta 48 irakaslez osatuta dago ikastetxeko klaustroa.

Joan den ikasturtean (2012-2013 ikasturtea), Hezkuntza Sailak pedagogian ematen duen saririk estimatuena (Karmele Altzueta Saria) jaso zuten guraso, ikasle eta irakasleek urteotan landutako ibilbideagatik. Hain zuzen ere, Ikas Komunitatea proiektua modu esanguratsuan garatzeagatik jaso zuten aipatutako sari preziatua.

Dozena bat urte dira Ikas Komunitate bihurtu zela Lekeitioko Eskola Publikoa eta urte luze hauetan zehar, emaitza nabarmenak antzeman dituzte ondorengo lau atal nagusitan: emaitza akademikoen esparruan, elkarbizitzaren esparruan, senide eta komunitatearen partaidetzaren esparruan eta, azkenik, prestakuntzaren esparruan.

3.3. Udal Kultur erakundea


Herrian bada Udal Kultur Erakunde bat, zeinetan herrian egiten diren kultur ekintzak antolatu, bideratu eta informazio orokorra ematen den (tailerrak, ikastaroak, arauak, laguntzak, antzerkiak, erakusketak, ekimenak, jaiak, kultur talde desberdinen kudeaketa, etab.). Aipatutako ekimenak aurrera eramateko, batik bat, kultur etxeko eraikineko gelak, antzokia, liburutegia eta KZ gunea erabiltzen dira.

Guztien gainetik, gure gaiarekin lotura estua duen liburutegia nabarmendu nahi genuke, bera izan baitaiteke errealitateak ematen ez dizkigun bizipenak sentitzeko eta jakingura asetzeko leku egokia. Kultur instalazio hau, 4 eremutan banatuta dago: isilean ikasteko gunea, taldeka edo bakarka lanak egiteko gunea, ordenagailu gunea eta liburuz betetako apalategi gunea.


3.4. Gurasoak

Inkestatutako gurasoak, seme-alabak herri ikastetxeetako Haur Hezkuntzako bigarren zikloan matrikulatuta dituzten gurasoak izan dira. Guztira, 40 guraso izan dira galdetegia bete dutenak: 20 ama eta 20 aita. Eta erantzunetan antzeman ahal izan den bezala, inkestatutako familien % 100, familia eredu tradizionalari dagokio.

Gurasoen artean, 2 multzo egin dira: bata, amek osatzen dutena, eta bestea, aitek osatzen dutena. Amen ezaugarriei dagokienez, 31-44 urte bitartekoak izan dira hauek (1. grafikoa). % 75ek bi haur dituzte, % 20k ume bakarra eta falta den % 5ak 3 ume. Haurren adinak 0 eta 10 urte bitartekoak izan dira.



1. grafikoa. Amen adina




2. grafikoa. Amen lanbidea

Lan munduari begira, inkestatutako amen % 10 langabezian dago eta % 90 lanean ari da: % 60k irakaskuntza munduan egiten du lana, % 15 administrataria da eta % 25etan, banketxeko langileak, emagina, merkataria edota saregina bezalako lanbideak ikus genitzake (2. grafikoa).


Bukatzeko, aipatu beharra dago, % 90en ama hizkuntza euskara dela eta % 10ek gaztelania duela ama hizkuntzatzat.

Aiten ezaugarriei erreparatzen badiegu, aldiz, 32-48 urte bitartekoak izan dira inkestatutako aitek (3. grafikoa), eta beraien ama hizkuntzari dagokionez, hurrengo banaketa egin genezake: % 70ek euskara, % 20k gaztelania, % 5ek euskara eta gaztelania, eta beste % 5ek, katalana.

Galdetegia erantzun duten % 75ek bi haur ditu, % 20k ume bakarra dauka eta % 5ek, 3 ume. Kasu honetan ere, haurren adinak 0 eta 10 urte bitartekoak izan dira.



3. grafikoa. Aiten adina



4. grafikoa. Aiten lanbidea

Lan munduari begira, inkestatutako aiten % 100 lanean ari da eta lanbide asko izan dira erantzunetan ageritakoak. Hala nola, administraria, aholkularia, ingeniaria, erosketa arduraduna, irakaslea, makinista, soldadorea, lantegiko langilea, peoia, igeltseroa, ostalaria, dendaria edota arrantzalea (4. grafikoa).

(Gurasoen datu orokorrak zehaztasun gehiagoz ikusteko, ikus 4. eta 5. eranskinak)

3.5. Irakasleak

2013-2014 ikasturte honetan, Lekeitioko herrian Haur Hezkuntzako bigarren etapan lanean dauden irakasleak 13 dira: 5 RM Azkue Ikastolan eta 8 Lekeitioko Euskal Eskola Publikoan. 35-59 urte bitarteko profesional hauek, batzaz bestez, 21 urteko lan esperientzia dute Haur Hezkuntzako etapan. Hortaz, ez dira atzo hasiak beraien ogibidean; belaunaldi eta hezkuntza sistema aldaketa asko ezagutu dituzten irakasleak izan dira inkestatuak.

Harrigarria bada ere, inkestatutako irakasle guztietatik bakarra izan da gizonezkoa eta guztien ama hizkuntza euskara da.

(Irakasleen datu orokorreari buruzko zehaztasun gehiago jakiteko, ikus 6. eranskina).

3.6. Liburutegiko arduraduna

Arduradun bakarrak betetzen ditu liburutegia zabalik dagoeneko ordu guztiak eta irakurzaletasunarekin lotuta herrian antolatzen diren ekimenak ere, beste erakunde batzuen laguntzaz bada ere, berak antolatzen ditu.

56 urteko gizonezkoa da Lekeitioko udal liburutegiko arduraduna. 25 urte baino gehiago daramatza kultur erakunde honetako lanak betetzen eta oso ondo ezagutzen du azken hamarkadetan herriko jendeak izan dituen ohiturak. Aitortu digu gustuko duela bere lana eta gogoz ekin diola urteotan irakurketarekin lotutako hainbat ekimen antolatzeari baina azken urteotan jasotako herritarren erantzun urriek ekimenok antolatzeko irrika eta grina itzali diotela.


4. Emaitzak eta ondorioak

4.1. Emaitzak

Prestatutako galdetegiak 3 komunitate desberdinei (guraso, irakasle eta liburutegiko arduraduna) egin zaizkien arren, emaitzak ateratzerako orduan, ez dugu kontuan izan bereizketa hori. Oro har, emaitzak ateratzeko edo sailkatzeko erabilitako irizpide nagusiak, galdetegietan jorratu diren gai desberdinak izan dira, hala nola, irakurtzeko ohitura pertsonala, seme-alabekin irakurtzeko ohitura, liburu-oparia, liburutegirako ohitura eta herriko ekimenetarako ohitura. Behin gaiak ondo bereizirik, galdetegietatik helarazitako erantzun esanguratsuenak edo aipagarrienak bildu eta aztertu ditugu. Hurrena, 2014ko martxoan Lekeition egindako ikerketaren emaitzak:

- Irakurtzeko ohitura pertsonala

Nahiz eta inkestatutako guraso guztiek noizbait irakurtzen dutela esan, egunero edo ia egunero 30 minutuz bada ere irakurtzeko ohitura dutenen kopurua % 67,5koa besterik ez da (5. grafikoa). Hori bai, sexuen artean ez da inolako desberdintasunik igarri irakurtzeko ohitura pertsonalari dagokionean.



5. grafikoa. Irakurtzeko ohitura pertsonala

Ohitura dutenen artean, irakurtzen duten lekuaren gainerako erantzunetan ere bateragarritasuna nabarmendu da. Nahiz eta erantzunetan, batik bat, etxea eta lantegia ageri, guztien erantzunetan ondoriozta genezake, etxea dela irakurtzeko tokirik


gustukoena. Euskarriaren gainean, ostera, ezin emaitza interesgarririk atera: aukeran eman diren euskarri guztiak erabiltzen dira eta ez da ezein gailentzen.

Gurasoen % 65ek dio, 40 liburu baino gehiago dituztela etxean, % 25ek, 20-40 eta % 10ek, 10-20. Gutxi izan dira haurrentzat helduentzat baino liburu gehiago dituztela aditzera eman diguten gurasoak. Gehiengoak (% 62,5ek) etxean dituzten liburuen erdiak haurrentzako eta beste erdiak helduentzako direla esan digute.

Azkenik, aipa dezagun, irakurtzeko ohitura izan arren, harpidetzarako usadio gutxi dagoela gurasoen artean; % 35ek besterik ez dauka harpidetzaren bat, eta horietatik erdiak ere ez dira hurrei dagozkienak.

- Seme-alabekin irakurtzeko ohitura

Ikerketaren emaitzek diotenez, gurasoek beren seme-alabekin irakurtzeko duten ohitura ez da oso indartsua. Aiten usadioari erreparatuta, inoiz ere irakurtzen ez dutenak % 10 dira, oso gutxitan irakurtzen dutenak % 50 eta egunero irakurtzeko ohitura dutenak % 30 besterik ez. Amen kasuan, aldiz, bestelako grafikoa antzeman daiteke: amen % 10ek, oso gutxitan irakurtzen du seme-alabekin, % 20k, astean birritan irakurtzen omen du eta % 30ek, astean 2-6 aldiz. Gainera, egunero irakurtzen duten amen kopurua % 40ra heltzen da (6. grafikoa).



6. grafikoa. Seme-alabekin irakurtzeko maiztasuna

Irakurtzeko momentuari dagokionez, maiztasunez irakurtzen duten gurasoen % 23k aitortu duenez, denbora dagoenean besterik ez du irakurtzen seme-alabekin eta beste % 77k, ordea, gauetan hartzen du hauekin irakurtzeko parada. Irakurgaiak beti izaten dira liburuak eta 10-15 minutuko iraupena izaten duen saioa izaten da guztien kasuan.

Irakasleen ustetan, ordea, gurasoek hurrekin irakurtzeko duten maiztasuna gurasoek erakutsitakoaren gainetik dago, profesionalen % 8k uste baitu gurasoek egunero irakurtzen dutela, % 31k, sarritan, % 38k, noizean behin, eta % 23k ez du iritzirik eman. Irakasleek aditzera eman dutenez, asko izan ez arren guraso batzuk behintzat hurbiltzen dira beraiengana irakurgaiaren gaineko gomendio batzuk eskatzera.


Ekimenaren eskariari dagokionez, gurasoen aipuei erreparatuta, % 13aren kasuan, gurasoek bultzatutakoa izaten da irakurketa etxean. % 35aren kasuan, ordea, haurra izaten da irakurketa eskatzen duena eta beste % 52aren kasuan, haur eta helduaren artean adosten dute noiz irakurri. Gaineratu behar da, gehiengoaren esanetan, nahiz eta irakurtzen dutenak gurasoak izan, haurrak izaten direla irakurgaia aukeratzeko lana hartzen dutenak. Irakasleen esanetan, ostera, ikastetxean irakurtzen dutenean ez dira haurrak bakarrik izaten irakurtzeko eskaria egiten dutenak, irakasleak ere tartean izaten baitira.

- Liburu-opari


Guraso gehienek opari ezin hobetzat hartzen dute liburua; % 15ek dio, opari bikaina dela, % 42k, oso ona, eta azken % 43k, liburua opari ona dela dio. Oro har, inork ez du aintzakotzat hartzen opari eskasa edo erdipurdikoa denik liburua (7. grafikoa).

Oparien ranking honetan sexuen arteko bereizketa eginez gero, amen eta aiten iritzien arteko desberdintasunak nabarituko ditugu: ama gehienek opari bikaina edota oso ona dela kontsideratzen duten arren, aitek ontzat besterik ez dute jotzen.

Opari bezala estimatuzetik opari gisa erostera badago aldea, ordea. Aiten % 40k, ez du liburu bat ere oparitzen urtean zehar, eta beste % 40k, 2-4 liburu erosten ditu oparitzeko. % 20k besterik ez du aitortzen 5 liburu baino gehiago erosten dituela urtean. Amen hitzetan, aldiz, % 70ek, 2-4 liburu oparitzen ditu, % 20k, 5 baino gehiago eta inoiz ere oparitzen ez duten ama kopurua % 10 bakarrik da (8. grafikoa).



7. grafikoa. Liburua opari preziatu?



8. grafikoa. Oparitzen den liburu kopurua


Antzekotasun handiago nabaritzen da erositako liburuen aukeraketa nork egiten duen galderaren erantzunean. Gurasoen % 47k dioenez, beraiek dira liburuaren aukeraketaz arduratzen direnak. % 40 haur eta gurasoen arteko aukeraketa egitearen aldekoak azaldu dira eta falta diren apurrek bestelako iritziak agertu dituzte: hala nola, aukeraketa haurrek besterik ez dutela egiten, guraso eta irakasleen artekoa izaten dela edota haur, guraso eta irakasleen artean adostutako prozesua izaten dela. Gainera, gehiengoaren

esanetan, aukeraketa horretan garrantzirik handiena duten aspektuak adina, zaletasuna eta istorioa izaten dira.

- Liburutegira joateko ohitura

Gurasoak hurrekin batera herriko liburutegira joateko duten ohituraren gaineko grafikoak (9. grafikoa) adierazten duen bezala, alde handia dago aiten eta amen artean. Aiten % 50, ez da inoiz joaten seme-alabekin liburutegira eta % 30, gutxitan joaten bide da. Ikusten denez, hurrekin batera liburutegira joateko maiztasuna duten aita kopurua oso baxua da: % 10, noizean behin joaten da eta, % 10, sarritan.

Amen erantzunek, ordea, beste emaitza batzuk adierazten dituzte: % 30, ez da inoiz joaten seme-alabekin liburutegira, % 25, gutxitan eta % 25ek, noizean behin joateko ohitura duela helarazi digu. Falta den % 20ak, ostera, sarritan bisitatzen omen du liburutegia seme-alabekin batera (9. grafikoa).



9. grafikoa. Liburutegirako maiztasuna


Liburutegiko arduradunari egindako galdetegiaren emaitzek ere, aita eta amen arteko maiztasunaren aldea baieztatzen dute. Egoten omen dira aitak seme-alabekin baina amen presentzia nabariagoa izaten dela komentatzen digu liburutegiko arduradunak. Hori bai, egunean 5-6 guraso besterik ez dira joaten liburutegira eta gehienek 10-15 minutu baino ez dute behar liburuak aukeratu eta etxean irakurtzeko eramateko. Arduradunaren hitzetan gutxi izaten dira bertan irakurtzen geratzen direnak.

Beste kontu bat da liburutegiko liburuen aukeraketaz nor arduratzen den: noizean behin eta sarritan joaten diren gurasoen % 54aren kasuan, haurrak izaten dira irakurgaiak aukeratzen dutenak eta beste % 46aren kasuan, ostera, guraso eta haurren artean egiten dute aukeraketa hori. Gaineratu behar dugu, liburutegiko arduradunak ez duela ezagutzen datu hori eta hortaz, ez digula aparteko informaziorik helarazi. Soilik, sarritan gurasoen denbora faltagatik, liburuen aukeraketa bizkorra eta desegokia izaten delako sentazio izaten duela besterik ez digu helarazi liburuzainak.

- Herriko ekimenetara joateko ohitura

Herrian irakurzaletasunarekin lotuta antolatzen diren ekimenetara joateko dagoen ohitura oso eskasa da: % 52, ez da inoiz joaten eta % 25, gutxitan izaten da mota horretako ekimenetan. Joaten direnen artean % 15ek, noizean behineko maiztasuna erakusten du eta sarritan joaten direnen kopurua, % 8koa besterik ez da (10. grafikoa).

Herri mailan irakurzaletasunarekin lotutako ekimen gutxi antolatzen direla esan duen gurasorik ere egon da inkestaturen artean. Hala ere, guraso horien esanen kontra, udal liburategiko arduradunaren esanetan, nahiz eta azken urteotan diru faltaren eraginez ez diren antolatu hainbeste ekimen, izan dira urteak 5-10 ekitaldi desberdin antolatu direnak eta ohitura faltak eraginda, orduan ere oso pertsona gutxi joan bide da. Urteko sasoi edo giroaren arabera, ekitaldietara joaten direnenen kopuruak izaten omen du gora beherarik, baina orokorrean, kopurua oso urria izaten da. Herrian antolatu izan diren ekimenak, hala nola, antzerkiak, ipuin-kontalariak edota liburu erakusketak izan dira.



10. grafikoa. Herriko ekimenetarako ohitura

4.2. Ondorioak

Etxetik sustatzen den irakurzaletasunaren gaineko ikerketa honek hainbat ondorio ateratzeko parada eman digu. Batzuk ikerketa aurreko hipotesiak baieztatzen dituztenak izan dira eta besteak, aldiz, berriak.

- Gurasoek badute irakurtzeko ohitura eta ez da alderik nabari sexuen artean. Gainera, irakurtzeko tokirik gustukoena etxea izaten denez, hurrek gurasoak antzematen dituzte irakurle eta jarduera hori imitatzeko aukera ezin hobea eskaintzen diete gurasoek haurrei. Irakurzaletasuna sustatzeko eredu ezin hobekak bihurtzen dira aita-amak.
- Elkarrekin irakurtzeko duten maiztasunari dagokionez, ordea, ez da lehenengo hipotesia bete, zeinetan elkarrekin irmotasun gutxirekin irakurtzen zutelako susmoa bagenuen ere, gurasoen erantzunek ohitura egon badagoela erakutsi baitigute. Alabaina, aitaren eta amaren jokaera desberdina erabatekoa izan da

haurrekin irakurtzerakoan. Emaitzei erreparatuta, aitek jarduerarako inplikazio txikia dutela ondorioztatzen dugu, amek batik bat hartzen baitute ekintza horretarako konpromisoa, lana eta zama. Sexuen arteko desberdintasun hori ez litzateke hain nabarmena izango, ordea, elkarrekin irakurtzeak dakartzan abantailak kontuan izango balira. Alde batetik, elkarrenganako lotura afektiboa estutzea legoke eta bestetik, etorkizunerako beharrezkoa eta baliagarria izango zaien ekimen baterako lehen hurbilpen egokiena eskaintzea seme-alabei.

- Gurasoek eta hurrek elkarrekin irakurtzeko momenturik gogokoena, gauean, oheratzerakoan izaten da eta, batez beste, 10-15 minutuko iraupena izaten du jardunak. Hala ere, denbora faltagatik, familia batzuetan momentu paregabe hori aprobetxatu ezina antzematen da. Gainera, haurraren autonomia eta irakurzaletasunaren sustapenerako mesedegarria den aspektu positibo bat ere ondorioztatu dugu etxeko ohituretan; haurra izaten da ia kasu guztietan irakurgaia aukeratzen duena eta horrela, bere interesak errespetatuz, autonomia emanaz eta behartutako irakurketa alde batetara utziz, irakurzaletasuna suspertzeko kutsua helaraz lekioket haurrari. Gure ustetan, gurasoek beti aukeratuko balituzte irakurgaiak eta irakur-momentuak, haurraren irakurtzeko grina ez litzateke hain errez piztuko.
- Aita-amek haurrekin irakurtzen dutenean erabiltzen duten euskarri bakarria ipuina izaten dela ondorioztatu dezakegu. Irakurgaiaren aukera honekin, ordea, ez gatoz bat, haurraren zaletasunak pizten dituen beste euskarri batzuk erabiltzearen aldekoak baikara. Adibidez, aldizkariak, egunkariko albisteak, iragarkiak edota posta bidez bidalitako mezua.
- Liburutegira joateko duten maiztasunaren gainean familiek eta liburuzainak esandakoaren artean desberdintasunak antzeman ditugu; izan ere, nahiz eta arduradunak esan egunean 5-6 familia izaten direla liburutegian, gurasoek ezeztatu egin dute maiztasun hori. Akaso, beste adin batetako haurrak izango dira liburutegira joaten direnak, baina gurasoen esanei erreparatuz gero behintzat, amen % 20 eta aiten % 10 besterik ez da joaten eta kopuru hori arduradunak aipatutakoaren azpitik dago. Herritarrak garen heinean, aipatutako arrazoiari gaineratu behar diogu, liburutegian liburu zaharrak eta aukera gutxi antzeman dugula, eta hortaz, hobetu beharra dagoela esango genuke.

- Guraso eta liburuzainaren esanetan, oso jende gutxi joaten da herrian antolatzen diren ekimenetara. Eguraldi eskasa dagoenean eta negu sasoiari, jende gehiago izaten da ekimenetara hurbiltzen dena eta hori denbora pasatzeko zerbait egin behar delako seinalea da eta ez zaletasunarena. Gainera, liburutegiko arduradunak ahoz komentatu digun bezala, ekimenetara joateko erraztasuna eskaintzeko asmoz, inoiz antolatu dira ikastetxeetan ekimenak, baina kasu horietan ere, partaidetza oso urria izan da. Hortaz, bigarren hipotesian aditzera eman dugun bezala, liburutegira eta ekimenetara hurbiltzeko ohitura faltak familien irakurzaletasuna sustatzeko inplikazio txikia erakusten du.
- Liburua opariaren rankineko zein postutan kokatzen den ondorioztatzeko, 2 galdera egin zaizkie gurasoei: lehenengoan, liburua opari gisa baloratzeko eskatu zaie gurasoei; eta bigarrenean, aldiz, urtean zenbat liburu oparitzen dituzten galdetu zaie. Hala, lehen galderaren erantzuna oso garbia izan da, zeinetan gurasoen % 15ek opari bikaintzat eta % 42k opari oso ontzat kontsideratzen duela azaldu baitu. Hala ere, bigarren galderaren erantzunekin alderatuz gero, aurretik esandakoa hankaz gora jarri eta irakurzaletasunaren alde erakutsitako iritzi positiboa (liburuarekiko estimazioa) kolokan jartzen dute gurasoek, % 20k besterik ez baitu aitortzen urtean 5 liburu baino gehiago oparitzen dituela. Nola liteke, ordea, horrelako opari edertzat dugun liburua hain gutxitan oparitzea? Benetan liburuak opari bikaina izango balira, gehiagotan oparituko genituzke eta ez urtean 2-4 aldiz bakarrik. Hortaz, bada inkoherentziarik gurasoen esanetan. Hirugarren hipotesian adierazi bezala, oraindik ez diogu estimu handirik liburuari. Bestalde, aipa dezagun, liburua opari bezala preziazterako orduan ere, aita eta amen arteko desberdintasuna antzematen dela, non liburua aita gehienek opari “ontzat” duten eta ama gehienek opari “oso ontzat”. Liburua opari gisa erosterakoan ere amen esfortzua gehiago antzematen dela baieztatu dezakegu gainera.

Horrenbestez, eta orain artekoak laburbilduz, ezin ukatuko dugu familiek etxetik irakurzaletasuna sustatzeko saiakerak egiten dituztela, baina inplikazio horretan, nabarmena izan da sexuen arteko desberdintasuna. Oraindik ere XXI. mendean, batez ere etxearekin eta seme-alaben zaintzarekin lotura duten jardueretan, guraso bakoitzak duen inplikazioa oso desberdina da. Horren adibide garbiak dira, alde batetik gurasoak seme-alabekin irakurtzen duteneko ohitura eta bestetik, liburutegira zein ekimenetara joateko bakoitzak hartzen duen konpromisoa. Jakin badakigu, etxeko giroa oso egokia

dela hurrekin batera bizipen atseginak bizitzeko, baita elkarrekin burutzen duten jarduerak eragin onuragarria ekarriko diola haurrari ere. Hala ere, egoera batzuk tentuz zaindu beharrekoak izango dira, nahitaezko jarduerak eta ahalegin zorrotzek antsietatea eta gorrotoa ekar baititzakete.

Bukatzeko, ikerketarako informazioa helarazi diguten 3 kolektiboen arteko harremanaz zerbait aipatu nahiko genuke; elkarrizketa formaletan (galdetegietan) zein informaletan (ahozkoetan) jasotako informazioak aztertuta, 3 kolektiboen artean harreman gutxi dagoela ondoriozta genezake, batez ere guk ikerketa mugatu dugun adinetan (3-6 urte). Alde batetik, ikastetxeen eta liburutegiaren arteko harremana dago: hau, Lehen Hezkuntzan gertatzen da, zeinetan liburutegia ezagutzeko bisitak antolatzen dituzten; baina aurretik ez da izaten inolako hartu emanik. Beste alde batetik, ikastetxeen eta familien arteko harremana dago: eskola publikoan, ikas komunitateen metodoari jarraituta tertulia literarioak antolatzen dituzte eta guraso, irakasle eta haurrak bertaratzen dira. RM Azkue Ikastolan, ordea, irakasle eta gurasoen arteko elkarrizketan bakarrik geratzen da irakurketa sustatzeko ahalegina. Irakasleek gomendatzen ohi dute familien artean irakurketa, baina aholkatzeaz gain ez dute besterik egiten. Eta azkenik, familia eta liburutegiaren arteko harremana legoke: gaur egun, 2 kolektibo hauen harremana liburutegia bisitatu, liburuak begiztatu eta maileguan hartzera besterik ez da mugatzen, diru faltak eraginda irakurzaletasunarekin lotutako ekimen gutxi antolatu baitira azken bi urteotan herrian. Hala ere, liburuzainaren hitzak gogora ekarriz, urtean 6-10 ekimen antolatu direnean ere jende gutxi joan da horietara. Beraz, ez da antolatze ezaren arazoa, zaletasun arazoa baizik. Bestalde, liburutegiko harpidetza txartela izateak hurrei egiten dien ilusioaren aitzakiaz bisitatzen omen dute familiek liburutegia, baina behin txartela aterata ez ohi dira sarritan bueltatzen. Gainera, adinak gora egin ahala irakurzaletasunak beherakada izaten duela sumatzen du liburuzainak.

Oro har, hiru kolektiboek elkarrekin ez dute gauza askorik egiten. Ez dago herri proiekturik hezkuntza, kultura eta herritarrak barnebiltzen dituenik.

5. Hausnarketa eta proposamena

Ikerketa egin ostean ateratako ondorioek garbi utzi dute etxetik irmotasun gutxirekin sustatzen dela irakurzaletasuna. Besteak beste, hutsuneak antzeman ditugu gurasoek hurrekin irakurtzeko duten maiztasunean, liburuarekin lotura duten erakunde edo jardunetara bertaratzekoan edota liburua benetan preziazterako orduan.

Horrenbestez, antzemandako hutsuneak estaltzeko asmoz eta, irakurketari lotutako bizipen egokiak izateko, etxeko giroaren egokitasunari indarra emateko asmoz, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Jardunbide Egokien Gidaliburua (Eusko Jaurlaritza, 2005:53) ardatz izanda batetik, eta gure ikerketan handik eta hemendik jasotako iradokizunak kontuan harturik bestetik, etxetik irakurzaletasuna sustatzeko lagungarriak izan daitezkeen gomendio batzuk proposatu nahi genizkieke gurasoei:

- Eredua izan: gurasoak dira haurren eredu eta, hauek egiten dutena imitatzen jotzen dute seme-alabek. Hortaz, haurren aurrean irakurtzea gomendatzen da, beraiek ikus dezaten irakurtzeak gozamina ekar dezakeela.
- Entzun: gurasoek eta hurrek elkarrekin irakurtzen dutenean, hurrek sari galderak egiten dituzte irakurgaiari buruz. Galdera eta zalantza horiei adi egotea gomendatzen da, horiek erakusten baitute hurrek duten ikasteko grina, zaletasuna edota ikasten jarraitzeko bidea.
- Elkarrekin irakurri: irakurtzearen gozamina elkarrekin irakurriz pizten da, hortaz, tartetxo bat hartu eta elkarrekin irakurtzea gomendatzen da.
- Proposatu, ez inposatu: inposatzea baino egokiagoa da iradokitzea, gomendatzea. Irakurtzeak gozamina helarazi behar dio haurrari eta ez derrigorra eta gorrotoa. Hau da, irakurtzea ez dadila obligazio bat izan haurarentzat.
- Lagundu: familiaren laguntza beharrezkoa izaten da adin guztietan. Horrenbestez, irakurtzen badakitela dirudienean ere, ez da gomendagarria haurrak bakarrik uztea, alloan lagungarri egingo zaien pertsona baten beharra izango baitute hurrek noiznahi.
- Errespetatu: irakurgaia, irakur-lekua eta irakur-momentua aukeratzeko eskubidea dute irakurleek. Hala, gurasoek haurren irakurgai gustukoak aztertzea gomendatzen da.
- Aholkuak eskatu: eskola, liburutegiak, liburu dendak, beste gurasoak eta leku horietako espezialistak laguntzaile paregabekoak dira irakurgaien aukeraketa egiterako orduan. Komenigarria da erakunde horiek bisitatzea seme-alabekin.
- Saiatua izan: esfortzua eskatzen badu ere, egunero hartu behar da irakurtzeko tartetxoren bat. Baita, lasaitasuna eta giro egokia sortu ere.
- Gogoia piztu eta adorea eman: egoera guztietan sor daitezke liburuetara jotzeko arrazoiak: informazio zaharra edo berria bilatzeko, datoren bat kontsultatzeko,

gustuko dugun istorioren bat entzuteko... Etxean liburu tentagarriak eta desberdinak haurren eskura uzteak irakurtzeko gogoia pizten lagun diezaiekete.

- Antolatuz: desordena ez da irakurketaren lagun ona izaten eta haurren denbora, liburutegia eta gainerako une-lekuak antolatzen lagundu behar zaie.

Sarritan, ipuin eta liburuetara edota gauean oheratu aurretiko momentura besterik ez da mugatzen irakurtzeko jarduna. Gure ustez, ordea, eguneroko bizitzako edozein egoeraz baliatu beharko genuke testu idatziaren gaineko jakin mina pizteko. Adibidez, egunkariko albiste interesgarri batek edota kalean Pirritx eta Porrotxen emanaldiaren gaineko iragarkia irakurtzeak ere zaletasun hori pizten lagun diezaiekete haurrari. Azken finean, irakurketaren helburua, mezua irakurri eta ulertzea litzateke eta zergatik ez saiatu haurrari interesatzen zaionarekin? Garbi izan behar dugu, edozein momentu eta toki lirakeela egokiak irakurzaletasuna sustatzeko eta ez soilik oheratzerako orduan irakurtzen dugun ipuina.

Irakurtzeko zaletasuna ez da oinordetzan hartzen, baina kutsatu daitekeen ohitura izan daiteke. Hurrek imitazioz asko ikasten dute, eta nahiz eta irakurzaletasuna sustatzeak etorkizuneko irakurle izango direnik ez ziurtatu, hizkuntza idatziarekiko hurbilpena, behintzat, eskainiko dio. Azken finean zaletasuna bakoitzarena da eta bakoitzak landu beharko du. Guraso, irakasle eta irakurketarekin lotutako beste erakundeen lana, hurbilpen egoki eta atsegina eskaintzea izango da, bederen.

Esandako guztia kontuan izanda, helarazi diezaiegun familiei irakurketa etxetik bultzatzearen garrantzia. Behintzat, egin dezagun gure esku dagoen guztia, galtzear dagoen zaletasun aberats hau berreskuratu eta haurren garapena zein jakintza bermatu eta ikasketa porrota ekiditeko ardatza den irakurketa prozesu eraginkor baten alde.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Aguirre de Ramírez, R. (2000). Artículos arbitrados: Dificultades de Aprendizaje de la lectura y la escritura. *Educere aldizkaria*, 4, 147-150.
- Añorga, P. (2010). Huheziko 3. mailako ikasle batzuen testigantza, irakurzaletasunari buruz. *Jakingarriak, Irakurzaletasuna*, 68, 14-22.
- Barandiaran, G. (2010). Bizitza irakurri. *Jakingarriak, Irakurzaletasuna*, 68, 12-13.
- Cova, Y. (2004). La práctica de la lectura en voz alta en el hogar y en la escuela a favor de niños y niñas. *Sapiens, Revista Universitaria de Investigación*, 2, 53-66.
- Eusko Jaurlaritzak (2005). *Irakasleak eta irakurketaren irakaskuntza: Jardunbide egokien gidaliburua*. Eusko Jaurlaritzak: Hezkuntza eta Ikerketa Saila.
- Fons, M. (2004). *Leer y escribir para vivir*. Bartzelonako unibertsitatea.
- Larrea, K. eta Maia, J. (2010). *Irakurketaren eta Idazketaren irakaskuntza. Galdera eta erantzun batzuk hizkuntzaren didaktikaz*. Leioa: EHU-UPV: Euskara eta Eleaniztasuneko

errektoreordetzaren argitalpena.

- Merino, G. (2001). *¿Cómo encontrar en casa el gusto por la lectura? Algunas Recomendaciones infalibles*. Colección Formemos Lectores. Caracas: Banco del Libro
- Molina, S. (2001). *Irakurtzen ikasteko zailtasunen prebentzioa haur eskolan. VIII. jardunaldi pedagogikoak, irakurketa eta idazketa*. EHU-UPV – Ikastolen Elkartea.
- Moreno, V. (2000). Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea. Hausnarketak eta proposamenak, 8-16. *Blintz aldizkaria: Liburutegiko sagua, Sorta berdea*.
- Oihartzabal, L. (1996). Irakurtze esanguratsua. Irakurtzen eta idazten irakasterakoan kontuan hartu beharreko hainbat aldagai. *Hik Hasi aldizkaria, Irakurketa/Idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik monografikoa*, 10, 8-31.
- Silva, D. (2001). *Escuelas para la lectura. Cómo transformar la escuela en un entorno Lector*. Caracas: Banco del Libro, Colección Formemos Lectores.
- Staiger, R. (1994). *Leer es un juego de niños. Guía del promotor de la lectura*. Maracay: Ediciones Secretaría de la Cultura del estado Aragua.

ERANSKINAK

1. eranskina. Gurasoentzako galdetegia

IRAKURZALETASUNA:

AITARENTZAKO/AMARENTZAKO GALDETEGIA



AITAREN/AMAREN DATU OROKORRAK:

Adina	
Lanean (Bai/Ez)	
Lanbidea	
Seme-alaben adina	
Ama hizkuntza	

IRAKURZALETASUNAREN GAINEKO GALDETEGIA

- Badaukazu irakurtzeko ohiturarik? Bai Ez
- Non irakurtzen duzu?
 Etxean Kalean Lantegian Liburutegian
 Garraio publikoan Beste nonbait
- Zein euskarri erabiltzen duzu?
 Liburua Aldizkaria Egunkaria E-Booka
 Internet Besteren bat
- Zenbatero irakurtzen duzu seme-alabekin?
 Egunero Astean 4-6 aldiz Astean 2 aldiz
 Oso gutxitan Inoiz ez
- Noiz irakurtzen duzu/diezu seme-alabei?
 Gauero Denbora dagoenean bakarrik Inoiz ez
- Nork du irakurtzeko ekimena?
 Haurrak Gurasoek Irakasleek Inork ez
- Nork irakurtzen du?
 Haurrak Gurasoek Irakasleek Inork ez

8. Nork aukeratzen du irakurgaia edo liburua?

Haurrak Gurasoek Irakasleek Inork ez

9. Etxean liburu asko dituzue?

0-10 10-20 20-40 40 baino gehiago

10. Etxean dituzuen liburuen artean zenbat dira haurrentzat?

% 10 % 25 % 50 % 75 % 100

11. Etxean dituzuen liburuen artean zenbat dira helduentzat?

% 10 % 25 % 50 % 75 % 100

12. Eskuragarri ditu (berak bakarrik hartu eta manipulatzeko modura) haurrak liburuak etxean?

Bai Ez Batzuk

13. Nork aukeratzen ditu erosten dituzuen liburuak?

Haurrak Gurasoek Irakasleek Saltzaileak
Inork ez

14. Zeri begiratzen diozu libururen bat aukeratzeko orduan?

Haurren adinari Haurren zaletasunei Izenburuari
Istoriolari Beste zerbaiti

15. Zenbat liburu oparitzen dituzu urtean?

Bat ere ez urtean 2-4 5 edo gehiago

16. Nola baloratuko zenuke liburua opari gisa?

Bikaina Oso ona Ona Erdipurdikoa Eskasa

17. Baduzu haurrekin herriko liburutegira joateko ohiturarik?

Sarritan Noizean behin Gutxitan Inoiz ez

18. Nork aukeratzen ditu liburutegian hartzen dituzuen liburuak?

Haurrak Gurasoak Eskolak Liburutegiko arduradunak
Beste norbaitek

19. Baduzu ohiturarik, haurrekin batera, irakurzaletasuna sustatzeko herrian antolatzen diren ekitaldietara joateko?

Sarritan Noizean behin Gutxitan Inoiz ez

20. Harpidetzarik baduzu?

Bai Ez

21. Harpidetza haurrarena da?

Bai Ez

22. Nahi izanez gero, eman zeure iritzia irakurzaletasuna etxetik bultzatzearen gainean:

ESKERRIK ASKO



2. eranskina. Irakasleentzako galdetegia

IRAKURZALETASUNA:

IRAKASLEARENTZAKO GALDETEGIA



IRAKASLEAREN DATU OROKORRAK:

Adina	
Sexua (E/G)	
Zenbat urte lanean HHn	
Seme-alaben adina	
Ama hizkuntza	

IRAKURZALETASUNAREN GAINEKO GALDETEGIA

1. Badaukazu irakurtzeko ohiturarik ikasgelan? Bai Ez
2. Unitate didaktikoetan dauden liburuez gain besteren bat irakurtzen diezu haurrei?
Bai Ez
3. Nork izaten du irakurtzeko ekimena?
Haurrek Irakasleek
4. Zein euskarri erabiltzen duzu batik bat?
Liburua Aldizkaria Egunkaria E-Booka
Internet Besteren bat
5. Eskuragarri dituzte haurrek ipuinak ikastetxean?
Bai Ez Batzuk
6. Jolasean dabiltzanean, zein maiztasunekin egoten dira irakurketa txokoan?
Sarritan Gutxitan Inoiz ez
7. Gurasoek irakurtzen dute beren seme-alabekin?
Egunero Noizean behin Gutxitan Inoiz ez
8. Gomendatzen diezu gurasoei haurrekin irakurtzeko?
Bai Ez Batzuetan
9. Gurasoek gomendioak eskatzen dizkizute haurrekin irakurtzeko liburuen gainean?
Bai Ez Batzuetan

10. Nahi izanez gero, eman zeure iritzia irakurzaletasuna etxetik bultzatzearen gainean:

ESKERRIK ASKO



3. eranskina. Liburutegiko arduradunarentzako galdetegia

IRAKURZALETASUNA:

LIBURUTEGIKO ARDURADUNARENTZAKO GALDETEGIA

Oharra: Kontuan izan, haurra diogunean, 6-7 urtetik beherako umeaz hitz egiten ari garela.



LIBURUTEGIKO ARDURADUNAREN DATU OROKORRAK:

Adina	
Sexua (E/G)	
Ama hizkuntza	

IRAKURZALETASUNAREN GAINEKO GALDETEGIA

- Zenbat urte daramatzazu lanean liburutegian?
 5 baino gutxiago 5-10 urte bitartean 10 baino gehiago
- Zenbat haur etortzen dira astean liburutegira irakurtzera?
 2 baino gutxiago 2-5 artean 5-10 artean Inor ez
- Zenbatero etortzen dira helduak hurrekin batera liburutegira?
 Sarritan Noizean behin Gutxitan Inoiz ez
- Zein euskarri erabiltzen dute gehien?
 Liburua Aldizkaria Egunkaria E-Booka
 Internet Besteren bat
- Zenbat guraso etortzen dira hurrekin irakurtzera?
 2 baino gutxiago 2-5 artean 5-10 artean Inor ez
- Horietatik, batez ere:
 Aitak seme-alabekin Amak seme-alabekin
- Nork aukeratzen du haurrak irakurtzeko liburu edo ipuina?
 Haurrak Gurasoek Eskolak Zeuk
 Beste norbaitek Ez dakit
- Zein hizkuntzatan hartzen dituzte, batik bat, haurrentzako irakurgaiak?
 Gaztelaniaz Euskaraz

9. Urtean irakurzaletasuna sustatzeko zenbat ekimen antolatzen dira liburutegian edo udal erakundeetan?

0-2 artean 2-5 artean 5-10 artean 10 baino gehiago

10. Mailegutzan hartzen diren liburuetatik zenbat dira haurrentzat?

% 10 % 25 % 50 % 75 % 100

11. Gogoratzen duzu guraso eta haurren artean gertatutako anekdotaren bat?

12. Nahi izanez gero, eman zeure iritzia irakurzaletasuna etxetik bultzatzearen gainean:

ESKERRIK ASKO



4. eranskina. Amen datu orokorrak

	Adina	Lanean	Lanbidea	Haurren adina	Ama hizkuntza
Ama 1	35	Bai	Irakaslea	4 urte	Erdara
Ama 2	34	Bai	Administraria	3 eta 6 urte	Erdara
Ama 3	36	Bai	Irakaslea	2 eta 5 urte	Euskara
Ama 4	37	Bai	Irakaslea	3 eta 5 urte	Euskara
Ama 5	34	Bai	Irakaslea	3 eta 5 urte	Euskara
Ama 6	33	Bai	Irakaslea	2 eta 5 urte	Euskara
Ama 7	34	Bai	Irakaslea	0 eta 5 urte	Euskara
Ama 8	44	Bai	Banketxeko langilea	3 eta 6 urte	Euskara
Ama 9	34	Bai	Irakaslea	4 urte	Euskara
Ama 10	38	Bai	Administraria	0 eta 5 urte	Euskara
Ama 11	34	Bai	Irakaslea	2 eta 6 urte	Euskara
Ama 12	35	Bai	Irakaslea	2 eta 4 urte	Euskara
Ama 13	36	Bai	Irakaslea	4 urte	Euskara
Ama 14	37	Bai	Merkataria	1,3 eta 5 urte	Euskara
Ama 15	31	Ez	-	1 eta 3 urte	Euskara
Ama 16	36	Bai	Irakaslea	3 eta 6 urte	Euskara
Ama 17	41	Bai	Irakaslea	5 eta 8 urte	Euskara
Ama 18	35	Bai	Emagina	4 eta 2 urte	Euskara
Ama 19	42	Bai	Saregina	5 urte	Euskara
Ama 20	44	Ez	Administraria	5 eta 10 urte	Euskara

5. eranskina. Aiten datu orokorrak

	Adina	Lanean	Lanbidea	Haurren adina	Ama hizkuntza
Aita 1	42	Bai	Irakaslea	4 urte	Euskara
Aita 2	37	Bai	Muntatzailea	3 eta 6 urte	Euskara
Aita 3	32	Bai	Lantegian	2 eta 5 urte	Euskara
Aita 4	41	Bai	Aholkularia	3 eta 5 urte	Euskara
Aita 5	35	Bai	Ingeniaria	3 eta 5 urte	Erdara
Aita 6	43	Bai	Erosketa arduraduna	2 eta 5 urte	Euskara
Aita 7	41	Bai	Galdategiko langilea	0 eta 5 urte	Euskara/Erdara
Aita 8	48	Bai	Makinista	3 eta 6 urte	Euskara
Aita 9	35	Bai	Irakaslea	4 urte	Euskara
Aita 10	41	Bai	Igeltseroa	0 eta 5 urte	Erdara
Aita 11	36	Bai	Peoi	2 eta 6 urte	Euskara
Aita 12	37	Bai	Irakaslea	2 eta 4 urte	Euskara
Aita 13	32	Bai	Lantegiko langilea	4 urte	Euskara
Aita 14	34	Bai	Dendaria	1,3 eta 5 urte	Euskara
Aita 15	37	Bai	Ostalaritza	1 eta 3 urte	Erdara
Aita 16	46	Bai	Arrantzalea	3 eta 6 urte	Euskara
Aita 17	40	Bai	Irakaslea	5 eta 8 urte	Erdara
Aita 18	37	Bai	Administraria	4 eta 2 urte	Euskara
Aita 19	45	Bai	Administraria	5 urte	Katalana
Aita 20	46	Bai	Kaldereria/Soldadorea	5 eta 10 urte	Euskara

6. eranskina. Irakasleen datu orokorrak

	Adina	Sexua	Esperientzia	Seme-alaben adina	Ama hizkuntza
Irakaslea 1	49 urte	Emakumea	24 urte	13 eta 15 urte	Euskara
Irakaslea 2	35 urte	Emakumea	7 urte	5 eta 2 urte	Euskara
Irakaslea 3	50 urte	Emakumea	20 urte HHn	18 eta 15 urte	Euskara
Irakaslea 4	55 urte	Emakumea	25 urte	32 eta 25 urte	Euskara
Irakaslea 5	48 urte	Emakumea	20 urte	-	Euskara
Irakaslea 6	37 urte	Emakumea	8 urte	4 urte	Euskara
Irakaslea 7	50 urte	Emakumea	26 urte	20,15 eta 12 urte	Euskara
Irakaslea 8	59 urte	Emakumea	25 urte	32 eta 30 urte	Euskara
Irakaslea 9	49 urte	Emakumea	22 urte	13 eta 18 urte	Euskara
Irakaslea 10	56 urte	Emakumea	23 urte	27 eta 23 urte	Euskara
Irakaslea 11	50 urte	Gizonezkoa	15 urte	8 eta 3 urte	Euskara
Irakaslea 12	50 urte	Emakumea	23 urte	21,17 eta 13 urte	Euskara
Irakaslea 13	59 urte	Emakumea	32 urte	34 eta 30 urte	Euskara



7. eranskina. Gurasoen erantzunak

		Ohitu.	Non?	Euskarria	Umeekin zenbatero?	Umeei noiz?	Ekimena	Nork irakurri?	Nork aukeratu?	Zenbat liburu etxean?	Haurre ntzat?	Held uent zat?	eskura garri?	Erositako ak nork aukeratu ?	Zeri begiratu erostean?	Zenbat oparitu?	Opari gisa	Liburutegira	Nork aukeratu liburutegi koak?	Herriko ekimenetara?	Harp idetz arik?	Haurrena?
Aita	1	Bai	Etxean Lantegian	Liburua Egunkaria	Egunero	Gauero	H,G	H,G	H	>40	50	50	Bai	H,G	Adina Zaletasuna	>5	Bikaina	Gutxitan	H,G	Inoiz ez	Bai	Ez
Ama	1	Bai	Etxean	Liburua Egunkaria Internet	Egunero	Gauero	H,G	H,G	H	>40	50	50	Bai	H,G	Adina Zaletasuna	>5	Bikaina	Gutxitan	H,G	Inoiz ez	Ez	Ez
Aita	2	Ez	Etxean	Internet	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H	H	H	20-40	50	50	Bai	H	Zaletasuna	0	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Ez	Ez
Ama	2	Ez	-	Aldizkaria	2tan	Denbora dagoenean	H	H	H	20-40	50	50	Bai	H	Zaletasuna	2-4	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Bai	Ez
Aita	3	Ez	Etxean Kalean	Internet	Egunero	Gauero	H,G	G	H,G	>40	25	50	Bai	G	Adina Zaletasuna Mezua	2-4	Oso ona	Inoiz ez	-	Gutxitan	Ez	Ez
Ama	3	Bai	Etxean Kalean Itxarongelan	Liburua Ebook-a	Egunero	Gauero	H,G	G	H,G	>40	25	50	Bai	G	Adina Zaletasuna Mezua	2-4	Oso ona	Inoiz ez	-	Noizean behin	Ez	Ez
Aita	4	Bai	Etxean Garraioan Lantegian	Liburua Egunkaria Internet	Oso gutxitan	Gauero	H,G	H,G	H	20-40	50	50	Bai	H,G	Istoriaa	2-4	Ona	Gutxitan	H	Sarritan	Bai	Ez
Ama	4	Ez	Lantegian	Aldizkaria Liburua Internet	Egunero	Gauero	H,G	G	H	10-20	50	50	Bai	H,G	Adina Edukia Sentimenduak Ilustrazioa	2-4	Oso ona	Gutxitan	H	Noizean behin	Ez	Ez
Aita	5	Bai	Etxean Kalean Lantegian	Liburua Aldizkaria Egunkaria Internet	Egunero	Gauero	H	G	G	>40	50	50	Bai	G	Adina Istoriaa	0	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Ez	Ez
Ama	5	Bai	Etxeanean Kalean Lantegian	Liburua Aldizkaria Egunkaria Internet	Egunero	Gauero	H	G	H	>40	50	50	Bai	G	Adina Istoriaa	2-4	Oso ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Ez	Ez
Aita	6	Bai	Etxean Lantegian	Aldizkaria Egunkaria Internet	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H	G	H	>40	25	75	Batzuk	G	-	0	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Bai	Bai
Ama	6	Bai	Etxean Lantegian Garraioan	Liburua Aldizkaria Egunkaria Internet	Egunero	Gauero	H,G	G	H,G	>40	25	75	Batzuk	H,G	Adina Zaletasuna Izenburu Istoriaa Idazlea Kritikak Gomendioak	>5	Oso ona	Sarritan	H,G	Inoiz ez	Bai	Bai
Aita	7	Ez	Etxean	Egunkaria Internet	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H	G	H	20-40	50	25	Bai	H,G	Zaletasuna	2-4	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Ez	Ez
Ama	7	Bai	Etxean Garraioan	Liburua Aldizkaria Internet	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H	G	H	20-40	50	50	Bai	H,G	Adina Zaletasuna Izenburua Istoriaa Ilustrazioa	0	Ona	Gutxitan	H	Noizean behin	Ez	Ez

Aita	8	Bai	Etxean	Ebook-a	Egunero	Gauero	H	G	H	>40	25	50	Bai	G	Zaletasuna	2-4	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Bai	Bai
Ama	8	Ez	Etxean	Internet	4-6	Gauero	H	G	H	>40	25	50	Bai	G	Zaletasuna	0	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Bai	Bai
Aita	9	Bai	Lantegian	Egunkaria Internet	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H	G	H	10-20	50	25	Bai	G	Adina	0	Ona	Noizean	H	Gutxitan	Ez	Ez
Ama	9	Bai	Etxean lantegian	Aldizkaria Egunkaria Internet	4-6	Gauero	G,I	G	H	20-40	50-75	25- 50	Bai	H,G	Adina Zaletasuna	2-4	Oso ona	Gutxitan	H	Inoiz ez	Ez	Ez
Aita	10	Ez	Etxean	Aldizkaria	Inoiz ez	Inoiz ez	H	G	H	10-20	50	50	Bai	G	Istoriaoa	0	Oso ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Ez	Ez
Ama	10	Ez	Etxean	Egunkaria	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H	G	H	10-20	50	50	Bai	G	Istoriaoa	2-4	Oso ona	Noizean behin	H	Gutxitan	Ez	Ez
Aita	11	Ez	Etxean	Egunkaria	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H	G	H	20-40	75	10	Batzuk	G	Zaletasuna	2-4	Ona	Gutxitan	G	Gutxitan	Ez	Ez
Ama	11	Bai	Etxean Lantegian	Liburua Aldizkaria Ebook-a Internet	2tan	Denbora dagoenean	H	G	H,G,I	20-40	50	25	Bai	G	Adina	2-4	Oso ona	Noizean behin	H	Inoiz ez	Ez	Ez
Aita	12	Ez	Etxean	Aldizkaria Egunkaria Internet	Oso gutxitan	Gauero	H,G	G	H	>40	50	25	Bai	H,G	Adina Zaletasuna	>5	Oso ona	Noizean behin	H,G	Noizean behin	Ez	Ez
Ama	12	Ez	Lantegian	Internet	4-6	Gauero	H,G	G	H	>40	50	25	Bai	H,G	Adina Zaletasuna	>5	Oso ona	Noizean behin	H	Gutxitan	Bai	Ez
Aita	13	Bai	Etxean	Liburua Aldizkaria Egunkaria Ebook-a Internet	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H,G	G	H	>40	50	50	Bai	G	Adina Zaletasuna	2-4	Oso ona	Inoiz ez	-	Noizean behin	Bai	Bai
Ama	13	Bai	Etxean Lantegian	Liburua Aldizkaria Egunkaria Ebook-a Internet a	Egunero	Gauero	H,G	G	H	>40	50	50	Bai	G	Adina Zaletasuna	2-4	Oso ona	Sarritan	H,G	Sarritan	Bai	Bai
Aita	14	Bai	Etxean	Liburua Aldizkaria	4-6	Gauero	H,G	G	H,G	>40	50	50	Batzuk	G	Zaletasuna Istoriaoa	0	Bikaina	Sarritan	H,G	Inoiz ez	Ez	Ez
Ama	14	Bai	Etxean	Liburua Aldizkaria Egunkaria	4-6	Gauero	H,G	G	H,G	>40	50	50	Bai	H,G	Adina Zaletasuna	2-4	Ona	Sarritan	H,G	Gutxitan	Ez	Ez
Aita	15	Bai	Etxean Lantegian	Liburua Egunkaria Ebook-a	Egunero	Gauero	G	G	H	>40	10	100	Bai	G	Zaletasuna	2-4	Bikaina	Gutxitan	-	Gutxitan	Ez	Ez
Ama	15	Bai	Etxean Kalean Garraioan	Liburua Egunkaria Ebook-a	Egunero	Gauero	G	G	H	>40	10	100	Batzuk	G	Istoriaoa	2-4	Bikaina	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Ez	Ez
Aita	16	Bai	Etxean Lantegian	Liburua Aldizkaria Egunkaria Internet	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	G,I	G,I	H,G,I	20-40	50	50	Bai	H,G	Zaletasuna	0	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Ez	Ez
Ama	16	Bai	Etxean	Liburua Aldizkaria Egunkaria Internet	2tan	Denbora dagoenean	H,G,I	G,I	H,G,I	20-40	50	50	Bai	H,G	Adina Istoriaoa	2-4	Ona	Gutxitan	H,G	Inoiz ez	Bai	Bai
Aita	17	Ez	Etxean Lantegian	Egunkaria Internet	Inoiz ez	Inoiz ez	H	H,G	H	>40	25	75	Bai	G,I	Izenburua	2-4	Oso ona	Gutxitan	H,G	Inoiz ez	Bai	Ez
Ama	17	Bai	Etxean	Liburua Ebook-a Internet	2tan	Denbora dagoenean	H,G	H,G	H,I	>40	75	25	Bai	H,G,I	Adina Zaletasuna Istoriaoa	>5	Ona	Noizean behin	H	Gutxitan	Ez	Ez
Aita	18	Bai	Etxean	Egunkaria Internet	Egunero	Denbora dagoenean	G	G	H,G	>40	75	25	Bai	G	Adina Zaletasuna	>5	Ona	Sarritan	H,G	Gutxitan	Ez	Ez

Ama	18	Ez	Etxean Garraioan	Egunkaria Internet	Egunero	Gauero	H	G	H	>40	75	25	Bai	H,G	Istoria	2-4	Bikaina	Sarritan	H	Inoiz ez	Ez	Ez
Aita	19	Bai	Etxean Kalean Lantegian	Liburua Egunkaria Internet	Oso gutxitan	Denbora dagoenean	H	G	H,G	>40	25	75	Bai	G	Adina Zaletasuna Istoria	0	Ona	Inoiz ez	-	Inoiz ez	Ez	Ez
Ama	19	Bai	Etxean Kalean	Liburua Aldizkaria Egunkaria	4-6	Gauero	H	G	H,G	>40	25	75	Bai	H,G	Adina Zaletasuna Istoria	2-4	Oso ona	Inoiz ez	H,G	Sarritan	Ez	Ez
Aita	20	Bai	Etxean	Liburua Aldizkaria Egunkaria	2tan	Denbora dagoenean	H,G,I	H,G	H,G	>40	50	50	Batzuk	H,G	Adina Zaletasuna Beste batzuk	>5	Oso ona	Gutxitan	H	Noizean behin	Bai	Ez
Ama	20	Bai	Etxean	Liburua Egunkaria	4-6	Gauero	H,G	H,G	H	>40	50	50	Bai	H,G,I	Adina Zaletasuna	2-4	Oso ona	Noizean behin	H	Gutxitan	Bai	Ez

8. eranskina. Irakasleen erantzunak

		Ohiturarik?	Udrik aparte irakurtzen?	Ekimena?	Euskarria	Eskuragarri	Irakur txokoa	Gurasoek irakurtzen dute?	Gomendatzen diezu?	Gomendiorik?
Irakaslea	1	Bai	Bai	H,I	Liburua,Internet	Bai	Sarritan	Noizean behin	Bai	batzuetan
Irakaslea	2	Bai	Bai	I	Liburua,internet	Bai	Gutxitan		Bai	batzuetan
Irakaslea	3	Bai	Bai	I	Liburua	Bai	Sarritan	Noizean behin	Bai	Ez
Irakaslea	4	Bai	Bai	H	Egunkaria,E-book	Bai		Noizean behin + egunero	batzuetan	Ez
Irakaslea	5	Bai	Bai	H,I	Liburua,Internet	Batzuk	Sarritan	Egunero	Bai	batzuetan
Irakaslea	6	Bai	Bai	H,I	Liburua,Internet	Bai	Sarritan	Noizean behin + egunero	Bai	batzuetan
Irakaslea	7	Bai	Bai	H,I	Liburua,Internet	Bai	Gutxitan	Noizean behin + egunero	Bai	batzuetan
Irakaslea	8	Bai	Bai	I	Liburua	Bai	Sarritan	Noizean behin + egunero	Bai	Bai
Irakaslea	9	Bai	Bai	H,I	Liburua,aldizkaria,egunkaria	Bai	Gutxitan	Noizean behin	Bai	Ez
Irakaslea	10	Bai	Bai	I	Liburua,laminak	Bai	Gutxitan		Bai	batzuetan
Irakaslea	11	Bai	Bai	I	Liburua,laminak	Bai	Sarritan	Noizean behin	Bai	batzuetan
Irakaslea	12	Bai	Bai	H,I	Liburua	Bai	Gutxitan		Bai	batzuetan
Irakaslea	13	Bai	Bai	H,I	Liburua	Bai	Gutxitan	Noizean behin	Bai	batzuetan